

KARMELE MUÑOA ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2011ko maiatzaren 25ean **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

30.- NESTOR BASTERRETXE ARETOKO BUTAKAK ALDATZEKO HORNIDURA KONTRATUA BEHIN-BEHINEKOZ ESLEITZEA.

Planteatutako gaia

Nestor Basterretxea udal aretoko butakak aldatzeko hornidura espedientea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Lizitazio prezioa kontuan hartuta, prozedura negoziatu bidez eta publizidade barik bideratu da kontratu espedientea.

Bigarrena: Hiru enpresa gonbidatu dira parte hartzera; ASCENDER, CINETRONICA eta AREA 3--D

Hirugarrena: Negoziazino prozesua egin ostean, eskaintza ekonomikoak aurkezteko epea edegi da. Hori amaitzerakoan, eskaintza bi baino ez dira aurkeztu: ASCENDER eta CINETRONICA.

Argudioak

Lehenengoa: Jagokozan konparazioak egin ostean, honeexek dira puntuak:

N.B. UDAL ARETORAKO BUTAKEN HORNIDURA KONTRATAZIOA 2011-49					
	ESKANTZAK			PUNTUAK	
	ASCENDER	CINETRONICA	AREA 3-D	ASCENDER	CINETRONICA
	DANERA			94,16	92,80

Bigarrena: Halanda ze, eskaintzarik onena ASCENDER enpresearena da, berak lortu dauelako puntuazinarik altuena.

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

LEHENENGOA: Nestor Basterretxea udal aretoko butakak hornitzeko kontratua ASCENDER enpreari esleitzea behin-behinekoz. Prezioa: 21.852,00 €, gehi BEZa (% 18).

BIGARRENA: Esleipendunari jakinarazotea, hornidurarako jasota dagozan baldintzak bete beharko dauzala.

HIRUGARRENA: Esleipendunari jakinarazotea udalagaz izango dauzan ahozko eta idatzizko hartu-emonak euskeraz izango dirala, eta fakturarik edo bestelako idazkirik aurkeztu behar dauenean euskeraz aurkeztu beharko dauzala.

LAUGARRENA: Esleipendunari gogoraraztea, behin betiko esleipena egin ahal izateko, behin betiko bermea ezarri behar dauela udal Diruzaintzan.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deutsut, behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2011ko maiatzaren 31n.

ONETSIA
JARDUNEKO ALKATEA